112

Saint-Palais 53.

La Doctrine chrétienne traduite de l'espagnol en basque-bas-navarrais-mixain tel qu'il est parlé à St-Palais

"53 pages"

Pour Son Altesse Monseigneur le Prince Louis-Lucien Bonaparte.

## Bekhatoros guzien dako abic huna.

Utz azu, bekhatorosa,
Gaur beetik bekhatia,
Urrun zite okhasionetik
Zointan beitzande sarthia.
Izan ditekezu gaurko gauyan
Zoure orian hiltzia;
Nai eta bihar beno lehen
Ifernutan sartzia.

Utz ditzaün bizio hek
Zoinek beiganzkete galdu̇k,
Eta galda, barkhamendia
Jinkoari dolutuk.
Libureu huntan erraiten dena
Sinhetsi eta egizu;
Ukhanez zeluko loria
Han deskantsa ziten.

Khurutze Seindiaü + Seïnaliaz, goure + etsayetaük libra gitzatzu + goure Jauna eta Jinkoa.
Aitaü eta Semiaü eta Izpiritu Seindiaü izeiian. halabiz.

### „ Paterra „

Goure Aita zelietan zaudena, eraïl bedi Seindutki zoure izena; jin bedi zoure erresuma; egin bedi zoure boöndatia, zelian bezala lurrian ere. Eman ezaüzu egun goure eguneko ogia; barkha dazkiautzu goure zorrak guk

zor gitustener barkhatzen tugün bezala; eta ez gitzatzula ütz tentatzionian erortzeá, bena libra gitzatzu gaitzetik. halabiz.

Agur Maria.

Agur Maria, grazias bethia, Iauna'uzu zourekin; benedikatia zira emazten artian eta benedikatia'uzu zoure Sabeleko frutia Iesus. Maria Saindia, Iinkouaün Ama, othoitz egizu gu bekhatorosen datko, orai eta goure heriotzeko orenian. halabiz

Kredoua.

Sinhetsten dizit Iinko Aita bothere guzia dienaün baithan, zeliaün eta lurraün Kreazalian; eta Iesu-Khristo haün Seme bakhar goure Iauna baithan; zoin Kountzebitu beizen Izpiritu Saindiaün berthutez, Sorthu Birjina Maria'anik; Sofritu zizün Pountzio Pilatusen manuz; Khurutzefikatu zizien, hil zuzun eta ehortzi zizien; jeutsi zuün Ifernietalat; hirougarren egunian jeiki zuzun hilen artetik; igaän zuün zelietalat, nun beitó jarriik Iinko Aita bothere

guzia dienaïn eskoüñian; hantik jinen duzu bizien eta hilen

jujatzeä. Sinhetsten dizut Izpiritu Saindiaün baithan; Eliza

Katoliko Saindiaü; Saindien pharteliertasunian; bekhatien

barkhamendian; haragiaün phiztian; bethi iraunen dien

bizitzian. halabiz. ——————

Salbia.

Agur, Erregiña, miserikordiazko Ama; agur, goure

bizia, eztitasuna, espeäntza. Zouri giaudezu oihuz Ebaün

haur desterratiak. Nigarrezko lur zola huntan, zouri

giaudezu hasperapenetan eta nigarretan. heya beäz, goure

aärtekoua, zoure miserikordiazko begiak goure ganat

itzultz kitzu. Eta desterru hunen ondotik eäkuts ezaüzu

Iesus zoure sabeleko frutu benedikatia. O Birjina Maria

amultsia, o goure huna nahia, o eztia ——————

Koësione jeneäla. Ni bekhatorola koësatzen nizu Iinko

Aita bothere guzia dienari, Maria bethi Birjina irousari

Migel arkanjelu irousari, Iuanes Batista irousari,

~~[illegible]~~ Petri eta Paule apostolu Saindier, Saindu guzier,

eta zouri, ene Aita, zeën egin baitut sobera bekhatu

gogoz, hitzez eta obraz, ene faltaz, ene faltaz, ene falta

handienaz; hortakotz othoitz egiten dizit Maria bethi

Birjina irousari, Migel Arkanjelu irousari, Iuanes

Batista irousari, Petri eta Paule apostolu Saindier, Saindu

guzier, eta zouri, ene Aita, egin dizazien othoitz enetako

goure Jinko Jaunari.

Kontrizionezko acta. Jesu Khristo ene Jauna, Jinko eta gizon

egiazkoua, ene Kreazalia eta Salbazalia, zu zirena zirelakotz,

eta zeën maithatzen zitudan gauza guzien gainetik,

damu'zit, Jauna, bihotz guziaz, zu ofentsatu ukhi;

hartzen dizit chede zin bat bekhatuük ez gehiö egiteko,

Koësatzeko eta emaïn zautan penitentziaïn egiteko,

 

eta urruntzeko bekhatuko okhasione guzietaik. Ofeitzen

dauzkitzut ene bizia, obrak eta nekhiak ene bekhatien

Satisfazionetan; Konfiantza'izit, Jauna, zoure huntasun

eta miserikordia finik gabekoetan, barkhatuko dazkiatzula

zoure odol preziatu, pasione eta heriotziaren merezimendien

gatik eta emanen dautazula hobeki bizitzeko grazia eta

irauteko zoure zerbitzu Saindian heriotzeko tenoreano.

## hamar manamenduak.

Jinkouaren legeko manamenduak hamar'tuzu. Lehen

hirouak Jinkouaren ohoriari behatzen direnak; beste zazpiak

aldiz proximo lagunaren progotchiari.

Lehena: Jinkoua maithatzia gauza guzien gañetik.

Bigarrena: haren izen Saindia ez hartzia juramentuz banoki.

Hirougarrena: Igandiak eta bestak igaraitia Sainduki

Laougarrena: Aita eta Ama ohoratzia. Bostgarrena:

nehor ez hiltzia. Seigarrena: lohikeriaïk ez egitia.
Zazpigarrena: Ez ebastia. Zortzigarrena: lekhukotasun
faltsuïk ez altchatzia. Bederatzigarrena: besten esposik
ez gutiziatzia. Hamargarrena: besten gauzaïk ez gaizki
desiatzia. ——————————

Hamar manamendu hok zerratzen 'tzu bietan: Jinkoaïn
zerbitzatzen eta maithatzen gauza guzien gaiñetik;
eta protsimo lagunia gure buria bezala. Halabiz.

Fedezko artikuliak.

Hamalaou 'tzu fedezko artikuliak; lehenbizitko zazpiak
Jinkotasunari behatzen zazkonak; eta beste zazpiak
Jesu-Khristo Jinko eta gizon egiazkuaïn gizontasun
Seindiari
Jinkotasunari behatzen diënak ditzu hok.
Lehena: Sinhetstia Jinko bat bakharra guziz botheretsian
Bigarrena: Sinhetstia dela Aita. Hirougarrena dela Semia
Laurgarrena: Sinhetstia dela Izpiritu Seindia

Bostgarrena: Sinhetstia dela Kreazalia. Seigarrena: Sinhetstia dela Salbazalia. Zazpigarrena: Sinhetstia dela Lorifikazalia.

Gizontasun Saindiari behatzen dienak hok dituzu.

Lehena: Sinhetstia Jesu-Khristo gure Jauna gizon bezala izan zela Kontzebitia Izpiritu-Saindiaren obraz eta graziaz. Bigarrena: Sinhetstia Sorthu zela Birjina Maria Saindia'rik, gelditzen zelarik hau Birjina erdi aintzinian, erditzian eta erdi ondoan. Hirougarrena: Sinhetstia erresebitu zitiela pasionia eta heriotzia gu bekhatorosak Salbatzia'tik. Laurgarrena: Sinhetstia jautsi zela ifernietalat eta athera zitiela hantik han jite Saindiaren beha zauden arimak. Bostgarrena: Sinhetstia phiztu zela hilen artetik hirougarren egunian.

Seigarrena: Sinhetstia igan zela zelietalat eta dela jarririk Jinko Aita guziz botheretsiaren eskouineko aldian. Zazpigarrena: Sinhetstia jinen dela bizien eta hilen

jinyatzeä: huner emaiteko loria, zeën zuzten beïratu

haïn manamendu Seindiak, eta gachtuer sekulako pena,

zeën etzuztelakotz beïratu.

## Giristino - dotrina

Giristino dotrinaä erraitia galdoz eta arrapostuz.

Galdatzen dizit. Giristino zirea? Ihardesten dizit. Baï, Jinkoaän

graziaz. G. Noën ganik ukhan zundien giristinoaän izen

Seindu hori? I. Jesu-Khristo gure Jauna'ganik. G. Zer erran

nahi du giristinua? I. Khristoän gizona. G. Zer kompre-

nitzen duzu Khristoän gizonaz? I. Jesu-Khristoän fedia

diena bathaizian errezeïtuik eta obliatia dena haïn

zerbitzu Seindura. G. Zoin da giristinoaän seïnalia?

I. Khurutze Seindia. G. Zertako? Zeën baita Khristo Khurut-

-zefikatiaän itchura zointan erosi beikitien. G. Zombat

gisetala giristinuak egiten du seïnale hori? I. Bietara, Jauna

G. Zoin dira? I. Zeñatzia eta Santiguatzia. G. Zer da Señatzia?
I. Eskouñeko eskuko etri behatzaz hirou Khurutze egitia, lehena
belarrian, bigarrena ahouan, hirougarrena bulharretan,
mintzatzen giélaïk goure Jinko Jaunaïkin. G. Läkhuts nola?
I. Khurutze Seindiaün + Señaliaz, goure + etsayetaïk libra
gitzatzu + goure Jauna eta Jinkoua. G. Zertako Señatzen
zira belarrian? I. Jinkouak libra gitzan phentsaketa
gachtuetaïk. G. Zertako ahouan? I. Jinkouak libra
gitzan hitz gachtuetaïk. G. Zertako bulharretan?
I. Jinkouak libra gitzan obra eta gutizia gachtuetaïk
G. Zer da Santiguatzia? I. Eskouñeko ébiez Khurutze
baten egitia, belarretik bulharretaäno, ezkerreko sobal-
-datik eskouñekoäno, mintzatzen giélaïk Trinitate
guziz Seindiaïkin. G. Läkhuts nola? I. Aitaün eta
Semiaün eta Izpiritu Seindiaün izenian. halabiz

Noiz egin behar dugu Khurutze Seinale hori? I. zerbeit obra hunen egiten hasten girelaik edo gerthatzen girenian beharretan, tentazionetan edo lanjerrian, partikularki ohetik jeikitzian, etchetik athratzian, Elizan sartzian, jateko unian eta lokhartzeko unian. G. Zertako hain berze aldiz? I. Zeen lekhu eta dembora guzietan goure etsayek atakatzen eta persekutatzen baigituzte. G. Zer etsai dira horiek? I. Mundia, debria eta haragia. G. Neiz Khurutziak baizu berthutia etsai horien kontra? I. Bai, Jauna. G. Nuntik du berthute hori? I. Jesu-Khristok bere heriotziaz Khurutzian gahitu zitielakotz. G. Adoratzen duzulaik Khurutzia, nola erraiten duzu? I. Adoratzen zitut, Khristo, eta benedikatzen, zeen zoure Khurutze saindiaz erosi duzun mundia.

## Giristino-dotrinaren Lehenguinia.

I. Khusi duzu giristinua zela giristinuaren izenaz eta seinaliaz:

erran ezaäzu orai.

G. Zömbat gauzen jakiteä obliatia da giristinua heltzen delaïk adimendura? I. Laur gauzen. G. Zoin dira? I. Jakitia zer behar dien sinhetsi, zer galdatu, zer obratu eta zer errezeïtu.

G. Nola jakinen du, zer behar dien sinhetsi? I. Dazkielaïk Kredüa edo fedezko artikuliak. G. Nola jakinen du zer behar dien galdatu? I. Dazkielaïk Paterra eta Elizaün beste othoitzak

G. Nola jakinen du zer behar dien obratu? I. Dazkielaïk Jinkouaün legeko manamendiak, Eliza ama Seindiaïnak eta obra misericordiazkuak.

G. Nola jakinen zer behar dien errezeïtu? I. Dazkielaïk Eliza ama Seindiaün Sakramendiak.

Dotrinaün lehenbizizko phartia, zömtan eäkusten beitira Kredua eta fedezko artikuliak.

G. Errazu: nok erran zien Kredüa? I. Apostoliek, Jauna.

G. Zertako? I. Gu fede Seindiaün instruitzeko. G. Eta zuk zertako erraiten duzu? I. Giristiñuek dugun fede hunen aithortzeko. G. Zer da fedia? I. Ikhusi eztuguinaün sinhetstia.

G. Ikhusi zindiena zuk Jesu-Khristo sortzen? I. Ez, Jauna.

G. Ikhusi zindiena hiltzen edo zelietalat igaaiten? I. Ez, Jauna.

G. Sinhetsten duzia? I. Bai, Jauna, sinhetsten dizit.

G. Zertako? I. Zeën Jinkouak errebelatu beitu Eliza ama Seindiari eta hunek hala eäkhusten gouri.

G. Zer gauza dira giristiño bezala dautzkatzunak eta sinhetsten'-tutzunak? I. Errumako Eliza ama Seindiak dautzkanak eta sinhetsten'tienak. G. Zer gauza dira zuk eta hak dautzkatzienak eta sinhetsten'tutzienak? G. Fedezko artikuliak berezitki, kredouan dauden bezala.

G. Zer gauza dira fedezko artikuliak? I. Ditzu fediaün misterio printzipalenak. G. Zertako dira fedezko artikuliak? I. Ezaützeko goure Jinko Jauna eta Jesu-Khristo

gorere Salbazalia. G. Nor da Jinkoua? I. Duzu gauzaïk hobeëna, erran eta phentsa ez daitekena; Jaun bat arras huna, bothéretsia, jakintsuna, justoua, gauza guzien hastapena eta akhaäntza. G. Nor da Trinitate Saindia? I. Duzu Jinko bera, Aita, Semia eta Izpiritu-Saindia, hirou presunak distintuak, eta egiazko Jinko bat bakharra. G. Aita Jinko dea? I. Bai, Jauna. G. Semia Jinko dea? I. Bai, Jauna. G. Izpiritu Saindia Jinko dea? I. Bai, Jauna. G. hirou Jinko direa? I. Ez, Jauna. G. Izpiritu Saindia dea Aita edo Semia? I. Ez, Jauna. G. Zertako? I. Zeën presunak distintuak beitira, egiazko Jinko bakhar bat izanik ere. G. Nola da Jinkoua orozbotheretsia? I. Zeën bere bothériaïtkin bakharrik egiten beitu nahi dien guzia. G. Nola da Kreazalia? I. Zeën ezdeusetaïk egin baïzitien gauza guziak. G. Nola da Salbazalia? I. Zeën emaiten beitu grazia eta bekhatuak barkhatzen. G. Nola Lorifikazalia? I. Zeën emaiten beitu Loria

irauten dienari hääin grazian. G. Jinkoak badia gork
bezala gorphutz idurirìk? I. Jinko bezala ez, zeën Izpiritu
houts bat beita, bana bai gizon bezala. G. Triinitateko
hiron presunetaik zoin egin zen gizon? I. Bigarrena,
zoin baita Semia. G. Aita egin zena gizon? I. Ez, Jauna.
G. Izpiritu Sendia egin zena gizon? I. Ez, Jauna.
G. Zoin bada? I. Bakharrik Semia, zoin gizon
eginik deithzen beita Jesu-Khristo. G. Nor da beäz
Jesu Khristo? I. Dozu Jinko bizian Semia, gouri ~~[illegible]~~ bizitzen
eäkhustia'atik eta goure erostia'atik gizon egin zena.
G. Zer erran nahi du Jesusek? I. Salbazalia.
G. Zertäko Salbatu gintien? I. Goure bekhatutik eta
debriaän gatibokeriatik. G. Zer erran nahi du Khristok?
I. Olioz Kontsekratia, ~~[illegible]~~, Komplia, edo gantzutia. G. Zertaz izan zen
gantzutia? I. Izpiritu Sendiaän dohainez eta graziez. G. Jesu Khristo
goure Jauna, nola izan zen Kontzeïtia eta sorthu zen

Ama Birjinaren ganik? I. Jinkouak obratuz sournaturalki eta miräkulluzki. G. Nola izan zen obra miräkuluzko houra? I. Izpiritu Sainduak Ama Birjinaren sabeleko odolik garbienaz egin ziozun gorphutz bat; ezdeusetarik kreatu ziozun arima bat; arima eta gorphutz houra elgarrekin jositik juntatu zitzun Trinitateko bigarren presunari, eta orduartio Jinko berik etzena gelditu zuzün Jinko eta gizon eginik.

G. Khristoren Ama bethi izan zena Birjina? I. Bai, Jauna, bethi Birjina. G. Zertako hil nahi ukhan zien Khurutzian? I. Gu bekhatutik eta heriotzetik libratzia'atik. G. Zer endelgatzen duzu Jesu-Khristo hil ondoan, jeutsi zizun ifernietalat? I. Eztizit entzuten Kondenatiak dauden lekhu houra, bezik eta justouak egoiten ziren Limbouak deithzen beitira Abrahamen besartia. G. Nola jeutsi zen? I. Arima juntatiik Jinkotasunari. G. Eta haren gorphutza nola

gelditu zen? I. Juntatuïk Jinkotasun beraïkin.
G. Nola phiztu zen hirougarren egunian? I. Haïn gorphutza eta arima loriaz bethia juntatzen ziëlaïk elgarrekin, behinere ez hiltzeko. G. Nola igaän zen zeliëtalat? I. Bere Berthutez. G. Zer erran nahi du „han dola jarriïk Aita Eternalaän eskouïneko aldian„? I. Jinko bezala aitak bezambat loria badiela, eta gizon bezala beste presunek beno gutiago. G. Noiz jinen da bizien eta hilen juyatzeä? I. Mundiaän atkhaäntzan.
G. Eta ordian behaïtea hil guziek phiztu? I. Baï, Jauna, ukhan zuzten gorphutz eta arima berekin.
G. Zer Sinhetsten duzu erraiten duzunian, Sinhetsten Saindien phartaliertasunian? I. Giristino fidel guziek pharte badutela huntasun izpiritualetan, gorphutz baten membrouak bezala, zoina beita Eliza.

G. Zer da Eliza? I. houra'uzu giristino fidel guzien bilkhura, zoinen buria beita Errumako Aita Saindia.
G. Nor da Aita Saindia? I. Duzu Errumako Aphez Nausia, lurrian Jesukhristoren Bikaria, zoini guziak obliatiak beikira obeditzeä. G. Kredoraz eta artikuliez landa, Sinhetsten duzia beste zoumbait gauza? I. Bai, Jauna, Eskritura Saindian den guzia, eta Jinkoak bere Elizari errebelatu datkon guzia. G. Zer dira gauza horiek? I. hori ez eni galda, zeën nizan jakitate gabia. Eliza Saindiak batzi dotorrak jartinen dutenak arrapostu emaiten.
M. Vutsa diozu dotorrer dola eta ez zouri khundu emaitia federzko gauza guziez. Aski'uzu zounetako federzko artikuliez emaitia, Kredoran diren bezala.
Dotrinaän bigarren phartia, zointan eäkhusten beitira zer behar den galdatu, eta Eliza Ama

Seindiaän othoitzak.

Ikhusi dügü nola jakizun zer behar duzun sinhetsi, hori beita lehenbizirko gauza: gonazen bigarrenea, zoin beita jakitia zer behar den galdatu.

G. Erazu: nok erran zien Paterra? I. Jesu Khristok, Jauna. G. Zertako? I. Gouri othoitz egiten eäkhusteko. G. Zer da othoitza? I. Duzu Jinkouari egiten den bihotzaän altchatzia eta fagore galdatzia. G. Paternosterra erraitian noëkin mintzatzen zira? I. Goure Jinko Jaunaïkin. G. Nun da goure Jinko Jauna? I. Lekhu guzietan, berezilki zelian eta Aldareko Sakramendu Seindian. G. Zoin da othoitzetan hobeëna? I. Paterra, Jauna. G. Zertako? I. Zeën Jesu Khristok berak erran beitzien bere ahoz apostoliek galdatuük. G. Zertako gehiö? I. Zeën beitütu zazpi galdo Kaütatian establitiak. G. Zoin dira? I. Lehena, eraïl bedi Seinduki Zoure izena. G. Zer galdatzen duzu galdo hortan?

I. Jinkouaün ijena ijan daila ezautia eta ohoratia mundu gujian. G. Zoin da bigarrena? I. Jin bedi zoure erresuma. G. Zer galdatzen dujn galdo hortan? I. Jinkouak atchik dezala handitasuna goure arimetan grazia eta gero eman dezaüla bere loria. G. Zoin da hirougarrena? I. Egin bedi zoure böondatia zelian bezala, lurrian ere. G. Zer galdatzen dujn galdo hortan? I. Jinkouaün böondatia egin dezaüla lurrian gaudenek, zelian irousek egiten duten bezala. G. Zoin da laougarrena? I. Eman ezaüjn egun goure eguneko ogia. G. Zer galdatzen dujn galdo hortan? I. Jinkouak eman ditzaüla gorphutzeko behar den bizitzekua, arimako grazia izpiritualak eta Sakramendiak. G. Zoin da bostgarrena? I. Barkha dauzkiautzu goure zorrak guk zor giturtener barkhatzen tuün bezala. G. Zer galdatzen dujn galdo hortan? I. Jinkouak barkha ditzaüla gukaien bekhatiak, hala nola

guk barkhatzen baitituü goure gaizki egiler. G. Zoin da seigarrena? I. Ez gitzatzula utz tentazionian erortzeä),

G. Zer galdatzen duzu galdo hortan? I. Jinkouak ez gitzala utz erortzeä ez eta ere kontsentitzeä, debriak bekhatian eroraaztia'atik ekhartzen ditien phentsamendu eta tentazione gachtuetan. G. Zoin da zazpigarrena? I. Bena libra gitzatzu gaitzetik. G. Zer galdatzen duzu galdo hortan? I. Jinkouak libra gitzala arimako eta gorphutzeko lanjer eta gaitz guzietaïk.

G. Zertako erraiten duzu lehenik „ goure Aita zelietan zaudena? I. Jinkouaïn ganat bihotzaïn altchatzeko eta umilki eta konfiantzaïki galdatzeko.

G. Zer erran nahi du „ Amen„ undarrik erraiten duzun hitz hark? I. hala izan daila. G. Zer othoitz egiten duzu printzipalki Ama Birjinari? I. Agur Maria

 

eta Salbia. G. Nok erran zien Agur Maria? I. Aingeru Gabrielek jin zelaïk Ama Birjinaïn Salutatzeä.
G. Nok erran zien Salbia? I. Eliza ama Seindiak diri errezeitia. G. Zertako? I. ama Birjinari fagore galdatzeko.
G. Agur Maria edo Salbia erraiten duzunian noëkin mintzo zira? I. Birjina Maria Seindiaïkin. G. Nor da Birjina Maria Seindia? I. Duzu andere bat berthutez bethia, Jinkouaïn Ama dena eta zelian egoiten dena.
G. Eta aldarian egoiten dena nor da? I. houra üzu zelian egoiten denaïn itchura eta imaya. G. Zertako egoiten da aldarian? I. houra ikhustiaïkin ohit giten zerian egoiten denaz, eta haïn itchura eta iduria delakotz egin dezakoün agurra.
M. Alta hau bera egin behaüzu Seindien imayer eta errelikier. — G. Egin behar düiya othoitz aingurier

eta Seindier? I. Bai, Jauna, gure aärtekuer bezala.

G. Zer gauza dira aingiuriak? I. Ditzu Izpiritu irous batzu Jinkouaz zelian gozatzen daüdenak. G. Zertako Jinkouak kreatu zitien? I. Eternitate guzian laudatzeko eta benedikatzeko G. Zertako gehiö? I. Haün ministro bezala goberna dezaten Eliza eta beïra gizonak. G. Beäz zuk baïzu aingeru begiralia? I. Bai, Jauna, eta bakotchak baïzi beria ———.

M. alta debozione handia ekharrakozu eta hari gomenda zite egun oroz ————————

Dotrinaün hirougarren ~~begarren~~ phartia, zointan eäkusten beitü zer behar ~~dezu galdatu~~ obratu.

Ikhusi düzi zer behaüzun Sinhetsi eta galdatu; ikhus dezaün orai zer behaüzun obratu.

G. Errazu: zoin da Jinkouaün legeko lehenbizizko mania? I. Jinko bat adoä zazu, halaber maitha osoki? G. Zer da Jinkouaün maithatzia osoki?

I. Nahiö ijaitia gauza guziak galduïk, ezik Jinkoua ofentsatu.
G. Zertara gehiö obliätzen gitu manu hunek? I. Haïn
bakharrik adoätzia gorphutzeko eta arimako errespetu
handienaz, Sinhetsiz eta espeäntza hartuz haïn beithan
fede bizi batekin. G. Nok egiten du bekhatu manu hunen
kontra? I. Sinhetsten edo adoätzen 'tienak idolak edo Jinko
faltsiak. G. Nok gehiö? I. Superstizione edo ~~[illegible]~~
belhagikerietan sinhetste hartzen dienak eta hetaz baliat-
-zen denak. G. Zoin da bigarrena? I. Juramentuik zuk ez duzu
ez zinik eginen banoki. G. Nok egiten du juramentu banoki?
I. Juramentu egiten dienak egiaïk, zuzentasunik eta beharrik gabe.
G. Eta bekhatu dea kreaturen gatik juramentia egitia banoki?
I. Bai, Jauna, zeën hetan egiten zakon juramentu kreazaliari.
G. Zer erremedio da juramentu banoïk ez egiteko?
I. Kostumatzia erraiten ez edo bai, Jesu Khristok eäkusten
daükun bezala. G. Zoin da hirougarrena? I. Igandiak

beïra zatzu, Jauna ere zerbitza deboki. G. Nok beïratzen'tu igandiak eta pestak? I. Meza osoua intzuten dienak eta beharrik gabe traäilatzen ez denak. G. Zoin da laougarrena? I. Aita eta ama ohora zatzu, bizi ziten luzaz. G. Nok ohoratzen'tu aita eta ama? I. Obeïtzen, laguntzen eta erespetatzen'tienak. G. Nok besteïk hartzen duzu aita eta amaän izenian? I. Nausiö diënak adinian, diñitatian eta gobernian. G. Zoin da bostgarrena? I. Nehor obraz hilen eztuzu, ez boöndatez gachtoki. G. Zer manatzen da manu huntan? I. Nehori gaizkiïk ez egitia ez hitzez, ez obraz, ez etare desiraz. G. Zoin da seigarrena? I. Pallardizaïk eginen eztuzu, obraz eta phentsaketaz latsuki. G. Zer manatzen da manu huntan? I. Izan gitela garbi hitzez, obraz eta phentsaketaz. G. Zoin da zazpigarrena? I. Besteëna ebatsiko eztuzu ez etare atchiïko injustoki. G. Zer manatzen da manu huntan? I. Ez khentzia, ez atchiïtzia ez eta ukhaitia besteën gauza

 

jabiaün boöndatiaün Kontra. G. Zoin da zortzigarrena? I. Lekhukota-sunik ez tuzu ez hitzik erraün faltsuki. G. Zer manatzen da manu huntan? I. Ez abiunki proximo lagunaz juyatzia, ez erraitia, ez etare intzutia haün kountsak. G. Nok egiten du bekhatu manu hunen Kontra? I. Arrazoinik gabe juyamendu gachtuak egiten tienak; fama galarazten, segretiak agertzen eta gezurrak erraiten tienak. G. Zer debekatzen da bederatzi eta hamargarren maniaz? I. Haragizko plazer eta besteen huntasunaïn gutizia gachtuak ——————

Eliza Ama Saindiaün maniak dituzu bost.

Lehena: Igandi eta bestetan meza osoua intzutia ——.

Bigarrena: urthian behin bedeën koësatzia edo leheno uste bada badela hiltzeko lanjerrik, edo Komuniatu behar dela.

Hirougarrena: gaïzumatko bazkotan Komuniatzia ——.

Laougarrena: Eliza Ama Saindiak manatzen dienian barurtzia.

Bortgarrena: detchimak eta primiziak hikouaïn Elizari paätzia

G. Zertako dira inamu hok? J. Jinkoaün legekuen hobeki beüratzeko.

Obra miserikordiazkuak ditzu hamalaou; zazpi izpiritualak edo arimari behatzen dienak, eta beste zazpiak korporalak edo gorphutzari behatzen dienak.

Zazpi izpiritualak edo arimari behatzen dienak hok'tuzu.

Lehenbizikua: Ez dakienari eräkustia. Bigarrena: behar dienari kontseilu emaitia. Hirougarrena: gaizki dailenaüa korrejitzia. Laougarrena: afruntien barkhatzia. Bostgarrena: tristen kontsolatzia. Seigarrena: proximo lagunaün houtsak eta flakeziak pazientziaükin sofritzia. Zazpigarrena: hilen eta bizien dako Jinkouari othoitz egitia.

Zazpi korporalak, edo gorphutzari behatzen dienak hok'tzu.

Lehena: eriak bisitatzia. Bigarrena: gose denari jateä emaitia. Hirougarrena: egarri denari edateä emaitia

Laurugarrena: gathibuak arraeostia. Seigarrena: pobren eta pelegrinen aloyatzia. Zazpigarrena: hilak ihortstia.

G. Zertako deithzen dira obra miserikordiazkuak? Zeën ezpeitira zor bortchaz. G. Noiz obliätuko dute bekhatiaün pian? I. Gizon jakintsunek behar handia dela juyatzen dutenian.

Dotrinaün laougarren phartia, zointan eäkusten beitira errezeïtu behar diën Sakramendiak.

Ikhusi dizi zer behaüzun sinhetsi, galdatu eta obratu: ikhus dezaün orai zer behaüzun errezeïtu.

G. Errantzkitzu Sakramendiak? I. Eliza äma Saindiaün Sakramendiak zazpi ïtzu: lehen bostak ditzu beharrezkuak, obraz edo desiraz errezeïtu behar diënak, zoinak gabe ezin salba beitaiteke gizona, utzten batu mespretzuz: beste biak böündatezkuak ïtzu.

Lehena: bathaya. Bigarrena: konfirmazionia. Hirougarrena: penitentzia. Laougarrena, gorphutz Saindia.

Bostgarrena; Oliadura. Seigarrena; Ordena. Zazpigarrena: Ezkontza —— G. Zer dira Sakramendiak? I. Ditzu Señale ageri batzu Jesu-Khristo goure Jaunak establitiak hetaz emaiteko gouri bere grazia eta berthutia. G. Zer da grazia? I. Izaite dibino bat egiten diena gizona Jinkouaün Seme eta zeruko primu. G. Zer berthute emaiten tutie Sakra-mendiek graziaükin batian? I. Hiruz jalki hirou teologalak eta zelukuak. G. Zoin dira? I. Fedia, espeäntza eta Kariatia. G. Zer da fedia? I. Ikhusi ez duünaün Sinhetstia, Jinkouak hala errebelatu dielakotz. G. Nok egiten du bekhatu fediaün kontra? I. Goure Erreli-jioneko egia guziak Sinhetsten ez tienak edo dudatzen tienak edo bere faltaz ikhasten ez ditienak. G. Zer da espeäntza? I. Espeätzia zeluko loria Jinkouaün graziaün eta goure obra hunen medioz. G. Nok egiten du bekhatu espeäntzaün kontra? I. Jinkouaün beithan espeäntza

galtzen dienak; zeliaň iraäjteä entseätzen ez denak.;
eta Jinkoua miserikordiosa delakotz bekhatu egiten
dienak. G. Zer da karitatia? J. Jinkoriaň maithatzia
gauza guzien gaňetik eta protsimo laguna goure buriak
bezala, hari egiñez hak gouri egitia guhaük nahi ginduzkena.
G. Zertako da batheyoko Sakramendia? J. Bekhatu orijinalaň
khentzeko eta beste edo zoin bekhatu harrapatzen dienen
batheatzen denaň beithan. G. Zer da bekhatu orijinala?
J. Duzu Aita Adamen eta Eba amaň ganik sortzez jiten
zaukun bekhatu bat. G. Nokhahik bathea dezakea behar
ordian? J. Bai, Jauna. G. Zer egin behar da mutsa
batheatzeko? J. Our naturala ichuri behaïzi batheatu
izan behar dienaň buriaň gaňera erraiten delaïk
dembora berian — Nik batheatzen zitut Aitaren
eta Semiaren eta Izpiritu Saindiaren izenian. halabiz.
G. Zertako kounfirmazioneko Sakramendia? J. Duzu finkatzeko

eta borthitzteko batheyan errezeïtu gindien fedia. G. Zertako da penitentziako Sakramendia? I. Batheatuz geroz egin bekhatien barkhatzeko. G. Zer bekhatu dira horiek? I. Ditzu mortalak eta benialak. G. Zer da bekhatu mortala? I. Duzu erraïtia, egitia, phentsatzia edo desiratzia Jinkoaän legiaän kontra gauza handian. G. Zertako deithzen duzu mortala? I. Zeën hiltzen beitu egiten dienaän arima. G. Zoumbat phartetan penitentziako Sakramendiak bekhatu mortalaän khentzeko? I. hirou, Jauna. G. Zoin dira? I. Bihotzeko dolosia, ahozko koëssionia eta obrazko satisfazionia. G. Bekhatu mortalian erortzen dea aldi guziez koësatu behar dea behala bekhatia barkhatzekotz? I. hun lukezu, bena ez nesesario. G. Zer egin behar da beäz? I. Izan behaïzi bere bekhatiaz egiazko dolu bat hobeki bizitzeko deliburiaïkin eta koësatzeko Elisa Ama Saindiak manatzen dien denboran

G. Zer da bekhatu beniala? I. Dusu erraitia, egitia, phentsatzia edo desiratzia Jinkouaü legiaü kontra gauza ttipian.

G. Zertako deithzen da beniala? I. Zeën hartan gizon aise erortzen beita eta aise ~~erortzen~~ ~~bate~~ barkhatzen beitzako. G. Zoumbat gauzaz barkhatzen zako? I. Bedeätziz, Jauna. G. Zoin dira?

I. Lehena: meza intzutia. Bigarrena: komuniatziaz. Hirougarrena: Ni bekhatorosa erraitiaz. Laougarrena: Aphezpikiaü benediziouniaz. Bostgarrena: Our benedikatiaz.

Seigarrena: Ogi benedikatiaz. Zazpigarrena, Paterra erraitiaz. Zortzigarrena: phredikü ~~aditu~~ intzutiaz. Bedeätzigarrena: bulharrak joz Jinkouari barkhamendü galdatziaz.

G. Zertako da gorphutz Seindüko Sakramendia? I. Erreseitzen delaük dinöki, izan daün goure arimen hazgarria eta emenda dezan grazia. G. Zer erreseitzen dusu gorphutz Seindüko Sakramendian?

J. Jesu Khristo Jinko eta gizon egiazkua, aldareko Sakramendu Saindian errealki dona.

G. Zertako da Oliadurako Sakramendia? J. Hirou gauzetako.

G. Zoin dira? J. Lehenbizikua: bekhatiaün erruaün eta undarren khentzeko. Bigarrena: arimari indar emaiteko etsayaün tentazionen kontra.

Hirougarrena: gorphutzari osaäria emaiteko kombeni bazako. G. Zertako da Ordenako Sakramendia? J. Ordinatzeko eta kontsekratzeko Elizako ministruak, nola beitira aphezak, diakriak eta sudiakriak.

G. Zertako da ezkontzako Sakramendia? J. Ezkontzeko eta ezkondier grazia emaiteko bizi diten elgarrekin bakian eta haurrak haz ditzaten zelurako.

Bekhatu Kapitalak zazpi 'tyu.
Lehena: urgulia. Bigarrena: abarizia.
Hirougarrena: lohikeria. Laougarrena: kolera.
BoStgarrena: gormandiza. Seigarrena: inbidia.
Zazpigarrena: auherkeria.
G. Zertako deithzen 'tuzu Kapitalak? I. Deithzen 'tyu
Kapitalak, zeen diren hotaïk Sortzen diren
bizinen buriak, ithurriak eta erruak bezala;
etzu untsa mortalak deithtatzia, Kasia beita haniz aldiz
ezpeitira benial bezik. G. Noiz dira mortalak?
I. Dielaïk Jinkouäu eta protsimo lagunaäu Kaïtatian Kontra.
G. Noiz dira Kaïtatiaäu Kontra? I. Horietaz hausten
delaïk Jinkouäu edo Elizaäu manamendu bat gauza
handian. G. Zer da urgulia? I. Bestiak beno
gehiö izaiteko amodio desordenatu bat.
G. Zer da abarizia? I. Huntesatutako amodio

desordenatu bat. G. Zer da lohikeria? I. Desoneske-
-riako plazer zikhinen amodio desordenatu bat.
G. Zer da kolera? I. Mendekatzeko amodio
desordenatu bat. G. Zer da gormandiza?
I. Jateko eta edateko amodio desordenatu bat.
G. Zer da inbidia? I. Besteen hunaün damu bat.
G. Zer da auherkeria? I. Obra hun egiteko enbeya falta.
Zazpi bizio hoyen kontra batzu zazpi berthute.
Urguliaün kontra: humilitatia. Abariziaün kontra:
jenerositatia. Lohikeriaün kontra: garbitasuna.
Koleraün kontra: pazientzia. Gormandizaün kontra:
arruntasuna. Inbidiaün kontra: karitatia.
Auherkeriaün kontra: baliostasuna.

Arimaün etsayak zoiñer ihes egin behar
beitü, ditzu hirou

Lehena: mundia. Bigarrena: debria. hirougarrena: haragia.

G. Noiz ihes egiten da mundiari'nik? I. Desprezatuz haren handitasuna eta banitatiak edo ezdeusKeriak.

G. Nola ihes egiten da debriari'nik? I. othoitzaz eta humiltasunaz. G. Nola ihes eginen da haragiari'nik? I. Barurtuz eta gorphutza zehatuz; hau duzu etsayik handiena, zeen haragia ezpeitazeKeü urrun goure'anik, bena bai, mundia eta debria.

Berthute teologalak hirou'tutzu.

Lehenbizitkua: fedia. Bigarrena: esperantza. hirougarrena. Karitatia

Berthute Kardinalak edo moralak tutzu laou.

Lehena: prudentzia. Bigarrena: zuzentasuna

Hirougarrena: azkartasuna. Laougarrena: arrimtasuna.

~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~

Gorphutzeko sendimendiak ditugu bost.

Lehenbizikua: begiez ikhustia. Bigarrena: beharriez intzutia. Hirougarrena: ahoz jastatzia. Laougarrena: sudurraz sendïtzia. Bostgarrena: eskuz hunkitzia.

G. Zertako Jinkouak eman daztüü sendimendiak eta bette gañesako membruak? J. Orotaz zerbitza dezaün gauza guzietan.

~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~

Arimako ahalak hirou tuztu.

Lehena: memoria. Bigarrena: adimendia.

Hirougarrena: boöndatia.

G. Zertako Jinkouak eman zaükun memoria? J. hartaz ohitzeko eta haïn beithan phentsatzeko.

G. Zertako boöndatia? J. Maithatzeko Jinkoua

gauza guzien gañetik, eta projimo laguna
bere burua baño geiago amatu bear dala.

~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~

Izpiritu Santuaren dohainak dira zazpi.
Lehena: jakintasunezko dohaina. Bigarrena:
adimenduzko dohaina. Hirugarrena: Kontseiluzko
dohaina. Laugarrena: endelgamenduzko dohaina.
Bostgarrena: indarrezko dohaina. Zazpigarrena:
Jinkoaren beldurtasunezko dohaina.

~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~~

Izpiritu Santuaren fruitiak ditzu hamabi.
Lehena: Karitatia. Bigarrena: bakia. Hirugarrena bihotzeko
handitasuna. Laugarrena: urrikaltasuna. Bostgarrena:
fedia. Seigarrena: beirapena „lohikeriatik„ Zazpigarrena:
gozo izpiritnala. Zortzigarrena: pazientzia:
Bederatzigarrena: huntasuna. Hamargarrena:
beraztasuna. Hameikagarrena: modestia.

# Hamabigarrena: garbitasuna.

Dohatsutasunak zortzi dira.

1. Dohatsu dira izpirituz pobre direnak, zeën heëndako beita zelietako erresuma.

2. Dohatsu eztiak, zeën heëndako izaïn beita lurra.

3. Dohatsu nigar egiten dutenak, zeën hek kontsolatiak izaïn beitira.

4. Dohatsu zuzentasunaän gose eta egarri direnak, zeën hek aseko beitira.

5. Dohatsu misterikordiosak, zeën hek miserikordia ardietsiko beitute.

6. Dohatsu garbi direnak bihotzez, zeën hek Jinkoua ikhusiko beitute.

7. Dohatsu bakedunak, zeën hek Jinkouaän haurrak

39

Deithatiak ijañ beitira

I. Irous zuzentasunaüdatko persekuzionia sofritzen ditenak, zeën heën datko beita zelietako erresuma.

G. Zer erran 'tiü orai? I. Zortzi irouštasunak.

G. Zer gauza dira horiek? I. Izpiritu Saindiaü dohainen eta berthuten obraïk hobeënak.

G. Nor dira izpirituz pobre diënak? I. Nahi eztitenak ohoreïk eta abeästasunik, ttipiak ijanik ere.

G. Nor dira eztiak? I. Samurguaïk ezditenak, ez etare kasik haïn linerretik.

G. Nola dira lurraün jabe? I. Beën burien nausi bezala.

G. Nor dira nigar egiten ditenak?

I. Utzten 'tiztenek guztiak, ttipiak ijanik ere.

G. Nor dira zuzentasunaü gose eta egarri diënak?

I. Obligazionez diten guzia attenzioneïkin egiten ditenak. G. Nor dira miserikordiosak?

I. Kompationez bethiak dienak arrotzekin berekin.

G. Nor dira bihotz garbi dienak?

I. Beren pasionetan arras mortifikatzen dienak.

G. Nor dira bakedunak? I. Beën eta besten artian bakia ezartzen dutenak.

G. Nor dira zuzentasunaän gatik persekuzione sofritzen dutenak? I. Gauza hunetan sostengatzen dienak, persekutatiak izanikere.

G. Zertako deithzen dira irouštasunak?

I. Zeën horietan beito bizitze huntako irouštasuna eta besteko espeäntza.

Gizonaän laöu azken finak.

G. Zoin dira gizonaän laou azken finak?

I. Heriotzia, jujamendia, Ifernia, Baraüzia eta Hernia.

G. Zer da heriotzia? I. Arimaren gorphutzetik bereztia.

G. Zer da jujamendia? I. Jujamendia da Jinkoaren aintzinerat presentatzia egin den ungiaren errekompentsaren edo gaizkiaren gastigiaren errezeitzeko. G. Norat juaiten da arima jujatu izan denean? I. Juaiten da bethikotz pharaüzurat edo ifernurat edo dembora batentako purga-torialat, gero pharaüzian sartzeko.

G. Eta gorphutza zer eginen da?

I. Gorphutza gelditüko da lurrian mundia finitu artio; bena ordian juntatüko da lehengo arima beraikin hunen chorte beraren izateko.

G. Zer da pharaüzia? I. Pharaüzia da Aingurien eta Jinkoaren grazian hil dien gizonendako destinatu irousitateko lekhu bat. G. Zer da ifernia? I. Ifernia da debrien eta bekhatu

mortaleko estatian hil diren gizonendako destinatu maleüsitateko lekhu bat.

G. Zer da Purgatoria? I. Purgatoria'uzu graziazko estatian hil dieen arimak juaiten den lekhu bat, nun mundu hountako pharte ez eman beitute beren bekhatiez Satisfazione osua.

G. Satisfazioneik eman dezakeuya gük Purgatorietan dauden arimen penen laburtzeko?

I. Bai, Jauna: Arima justo dieen penak labur-ditzazkietzün, bai eta ono fin goure othoitzez, barurez, limosnez, indulientziez eta bereziki mezako Sakrifizio Saindiaz.

---

Indulientziez.

G. Zer da indulientzia? I. Mundu huntan

 

edo Purgatorietan penitentsiaz Jinkoari bekhatien gatik eman behar zakon satisfazioniaün barkhamendia

G. Nola iraäzten indulgentsia?

I. Hunen iraäzteko manatzen diren gauzak eginez graziazko estatian.

G. Nola barkhatzen'tu Elizak bekhatiari zor zazkon pena temporalak?

I. Aplikatuz Elizaün izenian Jesu Khristoün pazionia eta Saindien merechimendu soberakinak.

---

Inkarnazioneko misteriä.

G. Zer da inkarnazioneko misteriä?

I. Trinitate Sainduko bigarren presuna, zoin beita Jinkoaün Semia, gizon egitea

Virjina Mariaren Sabelian Espiritu Seindiaren obraz eta berthutez, andere hau geldityen zelaïk Virjina erdi aintyinian, erditzian eta erdi ondoan.

G. Zoumbat naturaleza'tu Jesu Khristok?

J. Batizi bi naturaleza: Jinkoanaïna eta gizonaïna: batizi ere bi adimendu eta bi borondate: Presuna bat, Jinko bezala, eta memoria bat gizon bezala, zeïn eztelakotz kausityen Khristo beithan presuna humanoïk, eta Jinko bezala gauza guziak ditielakotz gogouan: Aita bat Jinko bezala, zoin beita Aita Eternala: eta ama bat, gizon bezala, houra beita andardana Maria, eztielakotz aitaïk gizon bezala, eta amaïk Jinko bezala. G. Nun da Khristo? J. Jinko bezala

lekhu eta gauza guzietan, eta gizon bezala bakharrik Zelian eta aldareko Sakramendu Saindian.

G. Zoin eguniez kontzebitia izan da Jesu Khristo Ama Birjinaren Sabelian?

J. Martchuaren hogei eta bostian; hil zuzun Ostiale Saindiez; phiztu Bazko egunian; eta igorri zizun Izpiritu-Saindia apostolier Mendekoste egunian

## Koësioniaz.

G. Zoumbat gauza behar dira koësione hun baten egiteko? J. Bost, Jauna. G. Zoin dira?

Lehenbizikua: kontzientziaren etsaminatzia.

Bigarrena: bekhatiez dolu eta arragret zelutikako baten ukhaitia.

Hirougarrena: gehiö bekhaturik ez egiteko deliberu

Gernu baten hartzia.

Laugarrena: bekhatiak diren bezala koëlatzia.

Bostgarrena: penitentziaüi komplitzia.

G. Zer da kontzientziaüi etsaminatzia? I. Azken koëfione hunaz geroz egin bekhatiez ohitzia.

G. Nontik etsaminatzen da kontzientzia?

I. Jinkoaüi legego hamar manamendietaïk, Eliza Ama Saindiaüi bostetaïk, obra miserikordiazkuetaïk bekhatu kapitaletaïk, eta batbederak bere estatuko obliajionetaïk.

G. Nola behar da kontzientzia etsaminatu?

I. Jinkoari grazia galdegin ondoan ohitu behaïzi nun eta noëkin ibili den, eta zer okasionetan den errekountratu; zer bekhatu egin den manamendu

batkotchaïn eta bere estatuko obliäjioneïn gañian.

G. Zoumbat dembora behar da kontjientjiaïn etsaminatzeko?

I. Ez duzu dembora markatüik; batbederak hartu behaïzi kausitzen

den zirkounstantzien arabera, hau delakotz egiteko importantena.

G. Zer da doloria? I. Duzu dolu eta arragret zelutikako

bat Jinkoua ofentsatüz izan delakotz.

G. Zoumbat gisetara da doloria? I. Bietara, Jauna.

G. Zoin dira? I. Kontrizjionia eta atrizjionia.

G. Zer da kontrizjionia? I. Duzu damu eta arragret

surnatural edo zelutikako bat Jinkoua ofentsatüik,

zeën den arras huna eta maithagarria, koësatzeko

eta gehiö bekhatüik ez egiteko deliberu fermu batekin.

G. Zer da atrizjionia? I. Duzu dolu eta arragret

surnatural edo zelutikako bat Jinkoua ofentsatüik,

bekhatiaün itsuustasunaz, zeliaün galtziaz edo ifernüaün merechitziaz, koëšatseko eta gehiö bekhatuïk ez egiteko deliberu ferme batekin.

G. Zoin da bi dolore hotaïk hobeëna?
I. Kontrizionia, Jauna. G. Zertako?
I. Zeën kontrizioniak berak koëšatu beno lehen barkhatzen beititu bekhatiak, bena atrizioniaz ez, koëšatu ondoäno.

G. Zer da deliburia? I. Gehiö bekhatuïk ez egiteko chedia finki hartzen dena.

G. Zer da koëšionia? I. Koëšionia' uzu aphez koëšorrari erraitia bekhatu mortal guziak kontzientziau hatzemaiten diren bezala batere

utzi gabe. G. Nola behar dira koësatu bekhatiak?
I. Behaïzi garbiki deklaratu phentsamenduz, hitzez eta obraz manamendu bakotchian egin bekhatu mortal guziak, bai etare zirkonstantzia bekhatia handiö egiten edo khambiatzen duten guziak.
G. Kontzientzia etsaminatu faltaz behar bezala, ahalgez, beldurrez edo malezíaz utzten bada bekhatu mortal bat koësatzeko, koësionia huna izaïn dea?
I. Ez, Jauna, lehengo bekhatien gañera eginen duzu sakrilejio bat, eta gelditzen duzu obliäzionia koësione beraïn arraberritzeä.

G. Koëtione hura ijaün dea, bere nahiïk gabe ahazten bada dekhlaratzeko bekhatu mortal bat?
7. Baï, Jauna, bena ohitzen delaïk lehen koësionian deklaratu behaïzi, nola aintziñian ahatziïk utzi zen bekhatu houra.
G. Baldin bekhatu mortal bat koësatzen bada dudazkua bezala eta gero ohitzen bada segurki egin zela, behar dea berriz koësatu ~~behar dea~~ bekhatu bera segurra bezala?
7. Baï, Jauna, zeën bekhatiak, ohitzen denaz geroz, barkhatiak izaiteko koësatu behar beitira segurrak bezala.
G. Bekhatu benialak koësatu behar direa?
7. Hun lukezu, bena etzu nesesario.
G. Zer da satisfazionia? 7. Apheż koësorrak

emaiten dien penitentziaŭ egitia.

G. Noiz behar da penitentzia komplitu?

I. Erraiten bada dembora, dembora hartan berian:
ezpada markatzen, ahal bezain fite.

G. Zer bekhatu izaŭ da penitentziaŭ ez komplitzia?

I. Penitentzia handia bada eta utzten pharte handi bat,
izaŭ duzu bekhatu mortala; penitentzia ttipia bada,
edo penitentzia handitik utzten pharte ttipi bat,
izaŭ duzu bekhatu veniala.

G. Noiz izaŭ da penitentzia handia?

I. Emaiten delaik bekhatu mortalen gatik, edo
bekhatu mortaleko bidetik urruntzeko chedeaikin.

M. Koëstione hunaŭ egiteko behar diren bost
gauzetaik, bat bakharra falta bada materiaz, Koëstione
gachtua eta sakrilejiozkua izaŭ duzu:

eta Salbatzekotz obliätiak gitzu Koësione gachto guzien arraberritzeä Koësione jeneral batez

---

## Koësatzeko manera.

G. Nola behar da Koësatu?

I. Koësorraïn hunetaä beno lehen belhaümikatuïk egin behaïzi penitentak Khurutze Señalia eta erran ahuzpe jarriïk „Ni bekhatorola Koësatzen nuzu„ hau fintu eta jeiki eta heltzen delaïk Koësorraïn hunetaä. erraiten dizi „Laudatia eta benedikatia izan bedi Aldareko Sakramendu Saindia, edo Aita benedika nezazu zeën egin beitut bekhatu.

G. Gero zer behar da egin?

I. Erran orduan berak zoumbat dembora dien azkenik Koësatuïk eta absoluzionia ukhanik deklaratuko'tzi bere bekhatu guziak humiltasunik handienaïkin.

G. Zer erran behar da bekhatu guziak koësatu ondoan?

I. Bekhatiak bedeäzka deklaratu dienian, erraïn dizi „ gisa beriau akusatzen iuzu orai eta bethi Jinkoari egin bekhatu guziez eta barkhamendu galdatzen diakozut, eta, zouri ene aita izpirituala, penitentzia eta atzolisionia baldin kombeni bazaut.

G. Baldin penitentak ez badu bekhatu mortalik akusat-tzekoïk, bat akusatuko'izi; eta ezpadu, gutienik egiten dien bekhatu benial bat.

G. Gero zer egin behar da? I. humiltasunekin eta errespetuïkin iutzun ondoan koësorraïn abisak eta penitentzia errezeitu, erraiten duzu ahozpekatuik bulharrak joz „ Kontrizioneko aita „

G. Zer egin behar da koësatu denian?

I. Uzu phentsamendian eraïli koësorraïn erranak

arraberritu deliburia bekhatuïk gehiö ez egiteko; hitzeman bezala puintentzia komplitu eta Jinkouari eskerrak bihurtu

Komuniouiaz.

G. Zer da ostian? I. aphezak kontsekrazioneko hitzak erran artiö ogia, Jauna; aphezak kontsekrazioneko hitzak erran ondrian Jesukhristoün gorphutz preziatia haim egiazki eta errealki nola zelian beitö.

G. Zer da kalitzian? I. aphezak kontsekrazioneko hitzak erran artiö anoua our chorta batekin; aphezak kontsekrazioneko hitzak erran tienian, Jesukhristoün odol preziatia haim egiazki eta errealki nola beitö zelian.

G. Ostia kontsekratian badoza Jesukhristoün gorphutza bezala odola ere, eta kalitzeko anouan

odola bezala gorphutza ere?

J. Bai, Jauna: batian eta bestian idereiten'tzu gorphutza, odola, arima, Jinkotasuna eta hirou presuna dibinouak, halako gisan nun guziak beitaude ostian eta guziak kalitzian.

G. Ogitik eta anotik eztea deus gelditzen Kontsekrazione orduan? J. Ez: ez duzu gelditzen ogiaïn eta anouaïn itchurak edo atzidentak bezik, zoinak beitira moldia, koloria, usaina eta gustia.

G. Aphezak ogi eta ano Kontsekratien atzidentak edo itchurak bekesten ditielaïk, hausten dea Jesu Khristoin gorphutza eta odola?

J. Ez: Jesu Khristo aurkitzen duzu den guzia beherzi pharte batkotchian: eta hala ostia pharte bat bezik errezeïtzen ez dienak, errezeïtzen dizi

Jesu Khristo guzia nola egiten beitu ostia osoua egiten dienak.

---

Komuniatzeko disposizionez.

G. Zoumbat gauza behar dira Komunione hun baten egiteko? I. hirou, Jauna. G. Zoin dira?

Lehena: jakitia zer behar dien errezeïtu.

Bigarrena: barur gorria izaitia.

hirougarrena: graziazko estatian egoitia.

G. Zer errezeïtzen du Komuniatzen dienak?

I. Jesu Khristo goure Jaun, Jinko, eta gizon egiazkua zelian eta aldareko sakramendu saindian dona.

G. Zer endelgatzen duzu barur gorria izaitiaz?

I. Izan behar dela gauerdiz geroz jan eta edan gabe, nun ezten Komuniatu behar eri bezala.

G. Zer endelgatzen duzu graziazko estatian izaitiaz?

J. Eztela izan behar bekhatu mortaleko estatian, eta hortakotz kontzientzia untsa etsaminatu ondoan, estatu triste huntan gerthatzen bagira, garbitu behar dügü koëfesione hun batez.

G. Bekhatu mortaleko estatian kommuniatzen dutenek errezeitzen dutea Jesu Khristo?

J. Bai, Jauna; bena beren burien kondenazioneko, zeën egiten beitute sakrilejiozko bekhatu izigarri bat

G. Nola hurbildu behar da kommuniatzeä?

J. Onnestki beztitürik, humilki, errespetürekin, eta egiazko debozione batekin.

---

Komunioneko mementoan.

G. Zer erran behar da aphezak Ostia Saindia eskian hartzen dielaïk?

J. „Jauna, enuzu dïño zoure errezeitzeko, bena

erraizu solament hitz bat, eta ene arima izanen duzu sendatia eta salbatia„

G. Zoumbat aldiz erran behar da?

I. Hirouetan, Jauna.

G. Eta gero zer erraiten da?

I. „Jauna, zoure esku dibinouer gomendatzen dizit neure arima.

G. Nola egon behar da komuniatzeko mementouan?

I. Belhaunikatuik eta begiak aphalik, bena itzuliak Ostia Saindia'ganat eta mihia ezpañen gañeän erdi atheätia.

G. Zer egin behar da Ostia Saindia errezeitu ondoan?

I. Aphezak eskia gibelatu dienian, ahua hetsi behaïzi eta Ostia Saindia ihetsi hezatu denian.